

# Istorio itzelak ukitzen


Alex Gurrutxaga

**K**ar mele Urresti eta Txomin Letamendiren istorioa –sekulako istorioa– du ardatz Kirmen Uriberen azken lanak, eta baita 37. mendeko beste hamaika pertsonaia eta gertaera ere.

Dokufikzioaren generoko lana da *Elkarrekin esnatzeko ordua*; hau da, kronikatik –dokumentalitik– abiatzen da eta fikzioa sartzen du, horrela, elementu eta parte fikzionalen bidez kronika aberasteko. Honen aurretik, Bernardo Atxagaren obran aurki dezakegu, besteak beste, ildo honetako lan aipagarriak –hor koka litezke *Markak* edo Lawrence Arabiakoari buruzko saiakera–. Uriberen testuan esaten denaren arabera, ordea, eskuetan daukaguna ez da saiakera, eleberria baino. Hor badago arazo bat, eta ez da saillapen kontu hutsala, baizik eta irakurketaren hitzarme-

nari dagokiona: 11. orrian eleberriz izendapena datorrenez, irakurleak gauza bat espero du, idazle irakurle hitzarmen jakin bat, baina paktu hori laster apurtuko du testuak, orriak pasa ahala ezagarririk testualak gertuago baitaude kronika soiletik eleberritik baino.

Ezagarririk horietan nagusia *teiling* deitua da: narratzaileak oso gutxitan askatzen ditu perso-



## 'Elkarrekin esnatzeko ordua'

**Idazlea:** Kirmen Uribe.  
**Argitaletxea:** Susa.

naiak, eta ez zaizkigu bat edo beste gauzak egiten erakusten –nahiz eta ziurrenik pasarte horiek duten merezimendu gehien–; oro har, narratzaileak berak kontatuko digu Uria maiteminduta zegoela, Sandia haserretu egin zela, eta abar. Are gehiago, aurreko liburuetan bezala, idazleak, istorioan sartu –testua autobiografikoa da hein handi batean– eta, hasieratik amaierara, irakurlea eskutik hartuta eramango du.

*Elkarrekin esnatzeko ordua* ren alderdi interesgarrietako bat bere aniztasuna da. Sarreraz eta azken hitzaz gain, bost zatitan banatutako hiru atal nagusi dauzka testuak; 158 txatal guztira, testu oso fragmentarioa osatuz. Hainbat material bildu ditu egileak –biografiak, egunerokoak, eta abar–, saiakera aberastu ez ezik, honi kolorea ematen diotenak. Hori da testuaren lorpen handietako bat: hari ugari elkartzea, sekulako mamia ezkatzen dutenak, eta hamaika pertsonaia, irakurketa oso dinamikoa –multifokalazio bidez eta tempo azkarrarekin– onduz.

Nabarmentzekoa da liburuaren atzean dagoen dokumentazio lana, baina, aldi berean, harri-garria da ohar batzuen maila xumea –eta nahiko akritikoa–, iduri bailuke idazleak buruan daukan irakurleak ez dakielako deus ere, adibidez, Ez dok Amairuri edo Burgosko prozesuari buruz. Horrekin batera, atentzia ematen du testuan zehar Historiak hartzen duen toki zabalak. Kontagai diren istorioei erreparratzen badiegu, Urresti eta Letamendi familiako bizitzak mikro-historiaren eta makroaren artean mugitzen dira, sona dezenteko pertsonak izan baitziren; baina, horiez gain, Agirre lehendakariaren figura gogoan hartzen ari diren garaioan, testuak dezentetan bat egiten du lehendakariaren irudiaren aldarrikapenean.

Fintasunez idatzitako testua da *Elkarrekin esnatzeko ordua*, irakurterraza eta gozagarria idazlearen estilo eraginkorrari esker, eta sekulako istorioak eta gaiak ukitzen dituena. Irakurle honen begietara, ordea, ukitze hori azalean geratzen da, eta apustu literario sakona eta literaturak berekin ohi duen gatazka falta dira.



## 'Barne iraultzen loraldia'

**Egilea:** Amaia Lasak.  
**Argitaletxea:** Zortziko.

**B**ere kazetari ibilbidean idatzitako artikuluek islatzen dute Amaia Lasak mugimendu feministarekin eta bestelako gai sozialetan duen engeaiamendua. Testu horietako batzuk bildu ditu *Barne iraultzen loraldia* lanean, eta Zortziko argitaletxearekin kaleratu du liburua. Idazle eta kazetariaren gogoetak jasotzen ditu.



## 'The Balde'. 89. zenbakia

**Argitaratzailea:** Eragin.com / Azpikari sl.

**A**ldizkariak jarrai zezakeela pentsatu arren, epe bat bukatutzat jo dute *The Balde* aldizkariaren arduradunek. Hala, hamabost urteren ostean, azken zenbakia kaleratu du, joan den azaro-abendukoa. Zenbaki guztiak noiznahi begiratu eta irakurri ahalko dira [www.thebalde.net](http://www.thebalde.net) webgunean.



## 'Euskal Herria, Kultura Matrilineala'

**Egilea:** Mari Karmen Basterretxea.  
**Argitaletxea:** Potlatch.

**I**bilbide luzea egina du euskal kulturako ohiturak eta erri-tuak ikertzen Mari Karmen Basterretxea antropologoak, eta hori hartu du mintzagai liburuan, baina gaur egunera begira ere jarriz, besteak beste, gizartearen nagusi den eredu patriarkala aztertzen du.

# Txolarrea ala zozoa?

## HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

**A**zal onean bildua, irudiz ongi hornitua, eta letraz neurrikoa izanik, amonaren mahaia gainera azpiletik ateratako gozokia dirudi obra honek.

Gozoa, nola bestela, pikuak direlarik kontakizunaren oinarri, nahiz eta ehiztaria giroa garraztera etorriko den: Pikondoaren pareko dorretxeko pareta-zuloan txolarre amak sei kume ditu zain, eta janaria eman behar die gogotik, haziko badira.

Kontaketa zortzi ekinaldietan banatuta dago, boz gora plazer hutez irakurtzen den testu batekin.

Bikain izateko, ordea, bi eragozpen ditu, irakurri ahala sortzen direnak: Pena da ez arazoizteza ehiztariaren damua

txoriari tiro egiten dionean. Ez da ulertzen bere ohiko jarduerak egiteagatik damutzea.

Eta penagarriago txolarreek ez jatea fruta, eta ez izatea, beraz, pikondoetako bisitari. Lastima zozoa ez aukeratu izana, hura zinez delako pikondoetako bisitari amorratua, eta, bere kanturako abildadeari esker, gizakiak maitatua, neurri batean.

Suposatzen dut –obra honen arduradunen kontsolamendurako– kalekumeak ez direla halako kontuekin askorik kezkatuko.



## 'Piku aspian'

**Idazlea:** Anton Kazabon.  
**Ilustratzailea:** Jokin Mitxelena.  
**Argitaletxea:** Denonartean.

# Suediako irakaspenna

## HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

**S**uediako haur literaturaren obra garrantzitsuenak dela diote, eta munduko 100 onenen artean zerrendatzen dutenak ere badira. Hitz handiak, obra honi neurria hartzen hasteko.

Esku artean duguna, euskaraz jarri berria dena, ez da obra osoa, haren 64 orrialdeko laburpena baizik, eta gogoan har, originalak laurhundik gora orrialde hartzen dituela, bostehun ere bai, edizioaren arabera.

Labur adierazteko, Suedian zehar egiten den bidaia bat da, idatzi zen garaiko paisaiak eta herritarak deskribatzen dituenak, antzara talde baten eta haur sorgindu baten abenturen aitzakian idatzia.

Horretaz gain, ezaugarri nagusia haurrak izaten duen ikaspenna da, balio moral zuzenean lotuak dauden

zintotasuna, adorea, ongiaren aldeko jaidura...

Oso interesgarria da ere nola animalien bizipenak animalia diren neurrian erakusten diren, euren izateko modu propioetik abiatuta, *Bambi* obran gertatzen den antzeko eran, animalia gizatiartuen ohiko ipuinetatik erabat beste aldera.

Laburpen hau trokelatutako orrialde ikusgarri edertuta dator, originalak eskain dezakeen plazer narratiboa ordezkatzeko-edo.



## 'Nils Holgerssonen bidaia miresgarria'

**Idazlea:** Selma Lagerlof. **Moldatzailea:** Kochka. **Itzultzailea:** Usoa Iñurieta. **Ilustratzailea:** Olivier Latyk. **Argitaletxea:** Ibaizabal.